

Kasik mendebete gure letra moldeek hilarrietako inskripzioetatik salto egin eta alfabeto bihurtzen hasi zirenetik. Bide luzea egin dute geroztik. Maitatu eta idealizatu egin ditugu, gaitzetsi eta atzerakoitzat jo, berriz deskubritu eta osatu.

Gure nortasunaren erakusletzat hartzen ditugu oraindik orain.



Modernitateari keinuka

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

GORPUTZ SENDO eta bukaera irregularrekoa, makila huts diren letra-mota aseptiko eta funtzionalekin ikustekorik ez du batere euskal tipografiak. Nabarmena eta harroa da, oso agerikoa, oharkabean pasatzen ez dena. Forma klasikoan azaltzen delarik, ikusi orduko ezagutzen eta identifikatzen dugu, ezaugarriak zehatz-mehatz definitzen asmatuko ez badugu ere. Astuna, betegarria egiten da maiz, bereziki hitz urriko izenburuez gaindi baliatzen denean. Bihurra eta ulergaitza, zenbaitetan.

Euskarriaren arabera kutsatzen dituen ezaugarriak bere nortasun handi horren adierazle dira: artisau eta tradizional ageri zaigu egurrean edota elikagaien etiketan; dotoreago, harrian, etxeen atarietan; modernitateatik urrun xamar, zahar kutsuan eta kasik atzerakoi, prentsan, liburuetan.

Hunkigarria zaigu, era berean. Hemengo izaitari eta geografari guztiz atxikia, ez dugu, demagun, janari izoztuen enpresa multinazional baten izen finlandiarra itxuratzen imajinatzen. Ez genuke, halaber, holding atzeritar baten aurkezpen orrietan edo logotipoan erraz ametituko, haren fundatzaileei euskal jatorririk ebatzi gabe.

Horrelakoxea da, beraz, geure tipografia hori: askotxok esanda, erabilera estu xamarrekoa. Gure bazterrotan nonahi aurkitzen da, haatik. Esaterako, bide-seinaleetan, herrietan ongi etorria ematen diguten paneletan, karrika izenak azaltzen dituzten plaketan, negozio eta dendetako toldoetan, kamioien aurrealdean, gune turistikoetako oroigarrietan, oinetako azpiak garbitzeko ipintzen diren lanpasetan, etxe izendunen atarietan, afitxetan, apaingarrietan... Eta, jakina, artisautza lanetan, tradizioari lotutako elementuetan edo itxura hori eman nahi duten produktuetan, bertako elikagaietan. Baita nazionalismoari edo euskaltzaletasunari loturiko hainbat alderdi, elkarte eta erakundetan nahiz administrazioan. Adibidez, Seaskaren, EAJren eta Eusko Jaurlaritzaren logotipoetan.

Historia apur bat

Iturburura jotzen hasita, Roman estiloa edo erromanikoa dugu gure idazketa-molde honen abiapuntua. Erdi Aroa, beraz.

Erromatarren inbasioak harrian landu beharreko ikur eta forma berriak ekarri zituen. Ez, ordea, karaktere horien lortzeko



TIPOGRAFIA

lanabes aproposak. Bertako artisauek, metalgintza teknikak ikasi gabeak artean, hizki latinoak zizelatzeko modu berezia asmatu behar izan zuten, haien gubien ahalmenari egokia-go zitzaien sistema: erromatarren antzean sakon tailatu beharrean, harria karraskatu egiten zuten letraren inguruan. Hau da, baxuerliebean aritu beharrean, kanpora nabarmentzen zuten irudia.

Bestalde, oso familia gutxiren esku zegoen jardunaz ari gara hizketan; transmisio bisual eta etxekoi baten fruitu den lanbidez; oinordetzan hartzen den tradizioaz. Ez da, beraz, harritzekoa, herri jakin bateko antzinako fatxada guztiek ezaugarri berberak erakustea edota, kasuren batean gertatu den gisan, herri bereko inskripzio guztiek akats ortografiko berbera erakustea.

Haranetan garatu, mantendu eta bereizitako molde horiek Louis Colas abadeak egindako lan itzelari esker heldu dira, neurri handi batean behintzat, gaurko egunera. Colasek, 1888tik hasita, erromesaren makila hartu eta bazterrik bazter arakatu zuen Euskal Herriko geografia osoa. Urteak eman

Erabilpen zabala eman zaion arren, euskal tipografia etxeen fatxadetara egokitu da hobekien.

zituen elizetan, baserrietan, hilerrietan aurkituko zituen inskripzioak biltzen eta sailkatzzen, gaur galduta edo desagertuta dauden adibide asko katalogatuta utziz.

Lan osatu bat baino gehiago, euskal tipografiaren entziklopedia dugu euskal estetika-ren defendatzaile sutsu honek batu eta bere diruz argitara eman zuena. Patrikak hustuta eta publikoak erakutsitako arreta eskasagatik etsita, mundutik erabat aparte eman omen zituen bere azken egunak.

Oraindik orain, iturri zaharretatik edan nahi duen tipografoak, bertsio modernoagoa sortu nahi duen diseinatzaileak edota gaiaren muinera heldu nahi duen adituak *Grafía, ornamentación y simbología vascas a través de mil antiguas estelas discoideas* Colasek utzitako lan bakan horretara jotzen du ezinbestean.

Euskal tipografiak argia ikusi zueneko

Euskal Pizkundera deituriko garaiak haizatu zuen euskal tipografia eta Txiki Zabalo grafista handiaren belaunaldiak finkatu, haren erabilera. Joan den mendeko hastapenean, bereziki 20 eta 30eko hamarraldietan nagusitutako giro



➊ Euskal tipografia

hartan guztiak behar zuen bere kolore eta bandera, guztiak marka eta bereizgarria.

Euskara bera ere garbitasun bikoitze baten ikur bihurtu zuen purismo sabindarrak. Hizkuntzak mantxarrik gabea behar zuen izan nola Jainkoarekiko, hala Aberriarekiko. Eta hari lotutako guztia behar zen erderatik desberdindu, alfabetotik eta letra moldeetatik hasita.

Karteletan, liburu azaletan –Txomin Agirrerren *Garoa* kasu– euskal tipografiaren eginiko adibideez gainera, *Grafía y ornamentación popular vasca* anaia Pablorekin batera ondutako lan bikaina utzi zigun *Txiki* Zabalok, *Martín Txilibitu* edota *Xabiertxo* bezalako lanen ilustratzaile ezagunak.

“Kezka bera zuten Zabalo anaia biek –azaltzen du Joxean Muñoz Otaegui, *Txiki*ren gaineko webgunean–, gauza berari begiratzen zioten, hizkietan *Txiki* eta apaingarrietan

koetatik libre antzean eta euskal hizkuntzarekiko loturak aski etenda heldu da XXI. mendera. Bereziki inportantea, zentzu horretan, Thierry Arsaut-ek euskal tipografia eredu digitalera eta guztion ordenagailuetara ekartzeko egindako ahalegina.

Tipografista honek, Ramuntxo Partarrieu margolaria lagun zuela, hainbat urtez ikertu eta diseinatutako familia zabal bat ipini zuen salgai 2001 urtean. Hamalau letra-motaz osaturiko bilduma, hain justu, *Euskara* izenburupean aurkeztua.

Hego Euskal Herrian nagusitu ziren letra lodikoteetatik hasi eta Lapurdiri propioago izan zaion molde fin eta estilizaturaino, oraino ezagutu den bilan txalogarriena dugu Arsaute-na, nahiz eta artean diskete formatoa gainditu gabea duen.

Iturri esanguratsuak nahiz hilarri edota

kutzak behin eta berriz estudiatzeaz gainera, esker txarreko lan handiak hartu behar izan zituen bilduma hau software batean plazaratzeko. “Hizki-mota hauen ezaugarri identifikagarrienak eta halaber antzinakoek teknologia informatikoan ematea izan da lanik

gaitzena –aipatzen zuen lana aurkeztu zuelarik–. Letraren simetria perfektua, eskuz eginda kasik ezinezkoa den hori, tekla bat sakatu hutsez lortzen da ordenagailuetan, baina horrek ikutu hotza ematen dio karaktereari. Hoztasun hori bera gainditzea edota berez duen lodiera aldakorra taxutzea izan dira nire buruhausterik handienak. Puntako teknologia erabiliz garai bateko grabatuak itxuratzea izan da beti helburua”.

Mendetako historia luzea baina bereziki azken berrogeita hamar urteotako molde erabilien bertsio osatuak aurkitzen dira *Euskara* bildumaren baitan, azalpen historikoz eta erabiltzeko gomendioz hornituta. Esate baterako, Classic deiturikoa, geografia osoan zabalduen aurkitzen den tipografiaren moldea. Esate baterako, Moderna deiturikoa, letra larri eta txiki guztiak biltzen dituen aldaera bakarra, azentu guztiak izaki, beste hizkuntzetan erabiltzeko moduan diseinatutakoa. Edota Ferrus delakoa, 1930 urtean sortua, Frankoren diktaduraren debekua jaso ostean, zenbait euskaldun eta errepublikarrek Ipar Euskal Herrian ezkutatu zutena, inprentan erabiltzeko diseinatutako letra bakarra.

Euskal tipografi familia honen datu anekdotikoena 2001eko martxoan Bilbon antolatutako nazioarteko enkanteak eskaintzen digu.



70-80 hamarraldietan bizi izandako giroak kasik masifikazioa eraman zuen euskal tipografia.

Pablok: erabilgarria izango zitzaizkien tradizio posible bati”. “1947an argitaratutako liburu honek –jarraitzen du– badu testamentu baten kutsua. Erbestean egin da lana: Ingalaterran zen *Txiki*; Venezuelan, Pablo. Itsasontziz bidaltzen zizkioten lanak elkarri. Ingalaterran marraztu, Venezuelan idatzi eta osatu, Argentinan argitaratu, Euskal Herrira ezkutuan ekarri, liburu bakoitza abentura heroiko bat zen garaiaren ikur da euskal ikurren bilduma eder hori. Zabalo anaiekin kemenari esker, dokumentu sistematizatu bat jaso genuen, muestrario oso bat, 70etan garatuko zen ‘berezitasunaren estetikaren’ susperraldian lanabes garrantzitsua eskainiko zuena. Horrela egin zuen Erdi Aroko tipografiaren aldaera lokalak idazkera nazional bihurtzearen prozesua”.

Garai digitalerako pausoa

70 eta 80ko hamarraldietako masifikazioak kasik topera eraman ostean, karga ideologi-

Hinrich Sachs alemaniar jatorriko artistaren ekimenez eta Consonni etxearen bitartez, hamalau letra-mota hauen softwarea eta ustiapen informatikoaren eskubideak ipini ziren salgai, 70.000 euroko gutxieneko prezioetik abiatuta. Euforiak bost minutu eskasetan apaldu ziren, eroslerik ezean bertan behera gelditu baitzen enkantea.

Sortzaile eta diseinatzaileen ekarpena

Klasikoez gainera, forma horietan inspiratutako tipografia berri bat baino gehiago plazaratu da azken hamarraldi honetan. Estiloa modernizatzeko premia argudiatuz, molde klasikoek dituzten hutsuneak osatzeko nahiz “benetako” tipografia normalizatu bat sortzeko beharrak aipatuz, zorrotzasun eta biribiltasunak zuzentzera edota lodiera diferentziak berdintzera jo dute diseinatzaile gehienek. Ezaugarri identifikagarrienak neurri batean kamustera, azken finean.

“Birsortze” horren adibide ditugu, esaterako, Bilbao, Kai, Basque New eta New Euskadi deituriko alfabetoak.

Lehena, besteak beste Bilboko Udalaren ekimenez ondua, Alberto Corazonek diseinatu zuen 2000 urtean. Bertako komertzioari identitate propio baten ezaugarriak erakusten lagun dezakeelakoan, edonork eskuratzeko moduan eta doan ipinita dago Interneten. Oro har, Albertus deituriko letra-motaren kopia izatea leporatzen zaio.

Bigarrena, Kai deiturikoa, Santos Bregaña eta Mikel Enparantza donostiar diseinatzaileek sortu zuten 1997an. Letra mota honek aparteko protagonismoa izan zuen goraxeago aipaturiko enkantean, sortzaileen harridurarako, *Euskara* familia osatzen duen hamabosgarren tipografia gisan aurkeztu baitzuten hasiera batean. Ez zen, hala ere, enkantera heldu, eta erabiltze eskubideak ordaindu egin behar dira.

Basque New delakoa Eusko Jaurlaritzaren logotiporako sortu zuen Enrique Lucas-ek Visual agentziaren izenean. Eta New Euskadi, berriz, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako turismoa sustatzeko 2006ko kanpaina baten eskutik heldu zen kaleetara. Ernesto Arnáez diseinatzaileak landutakoa da.

Bide seinaleen arautzeak, hainbat tokitan ikusten den gehiegikeriak, modak eta diseinatzaileen berrikuntza egarriak, bada, atzera bidean ipini du euskal tipografia Hego Euskal Herrian. Ez, ordea, Ipar Euskal Herrian, non etxegintzarako euskal estetika ereduarekin batera, ugaltze kasik naturala izan duen eta, aldaketa nabarmenik gabe baina ukitu txikiak onartuz, bide elegante bezain logikoa egin duen. Non, salbuespenak salbuespen, lehen kolpean identifikagarriak egiten zaizkigun ezaugarriak galdu gabe, itxura eguneratua erakusten duen. ■



III. etxepare beka Haurrentzako albumak sortzeko

Saria: 6.000 euro

Argitaratzaileak:

Pamiela eta Faktoria K de libros

Originalak aurkezteko epemuga:

2008ko azaroaren 28an,

Burlatako Udaletxean (Nafarroa)

oinarriak: www.baranain.com

antolatzaileak:

Auritz, Erroibar eta Luznildeko Udalak;
Boraiñingo Udala/Ayuntamiento de Boraiñin;
Buzanago Udala; Berriozarko Udala; Bortziristako
Euskara Mankomunitatea; Burlatuko Udala;
Garesko Udala; Nafarroako Iparraldeko Euskara
Mankomunitatea; Lizarrako Udala; Maierrekako
Mankomunitatea; Orkoien, Oitzako Zenden,
Etxauri, Ollarun eta Bidaurretako Udalak;
Sukarako Mankomunitatea; Uhartea eta
Esteribariko Zerbizua Mankomunitatea; Zaraitzu
eta Erronkariko Butzorde Nagusiak; Zizur
Nagusiko Udalaren Kultura Patronatua.

laguntzaileak:

Nafarroako
Gobernua